


Noaia!!



Gehiengo osotik gertu geratu da EAE-ANV



Iñaki Añorgak

Duatloi denboraldi bikaina osatu du

Urbil baino hur bilago

eguneko
esnea
Kalitatezkoa



bertakoa

aginagako **Iarbe**
baserrikoa

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

Aikartasuna Eikartea
Baserritar Kooperatiha
aikartasuna@usurbil.com
Ugarte Industrialedea 17
943 361 114

UDAJOLASO
Uurbil

UDA TXIKI

2^a 5^a
URTEA

Adin hauetara
egokitutako ekintzak.

UDA ERDI

Egunero joku
ezberdinak: espaziora
bidala, munduari itzulla...

6-7
URTEA

UDA GAETE

8-11
URTEA

Irteerak, bizikletan ibili,
bi egunetako irteerak...
eskalatu

ORDUTEGIAK

Goizez 9.00-13.00

TXANDAK

1goa uztailaren
3tik 13era
2.a, uztailaren
16tik 30ra

Izena

emanteko:

637 758 718

943 367 496

Arratsaldez eta gauez

Azken eguna:

Ekainak 22

Azterduzkoak pedagogikak
eta mailareko esperientziadunak
izango dira

Badok Amairu !!

Eneko Izagirre: "Lekurik ederrena, Brasil"

Izen abizenak: Eneko Izagirre
Kastresana. Adina: 25 urte. **Helbidea:**
Zubieta. **Lanbidea:** mekanikaria.

1. **Jakirik gogokoena.**
Arroza almeja freskoekin.
2. **Ohitura txarren bat.**
Hitzorduetara berandu iristea.
3. **Zer gordetzen duzu sakelan?.**
Autoko giltzak eta mugikorra...
Beasaindik galduta egon arren.
4. **Zertan berpiztuko zinateke?.**
Gau txori batengan.
5. **Zeri diozu beldurra?.**
Konpromisoei.

6. **Miresten duzun pertsona.**
Gurasoak.

7. **Ezin zaitezke bizi...**
Parranda egin gabe.

8. **Egindako erokeria handiena.**
Brasilera joan nintzenean, neska
batengatik ia bertan geratu nintzen.

9. **Liburu bat.**
"Afrikako semeak". Hortik dator,
"Haisa", nire goitizena.

10. **Film bat.**
"Seven".

11. **Leku bat.**
Natal (Brasil).



12. **Herriko lekurik ederrena.**
Zubieta.

13. **Urtaro bat.**
Udara, beroa kenduta.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

GIMNASIA TALDEKOEKIN HIZKETAN _____ **5. OR.**

EKAINAK 10, ESKOLA TXIKIEN FESTA _____ **8. OR.**

UMORE IKUSKIZUNA SUTEGIN _____ **9. OR.**

HAUTESKUNDETAKO EMAITZAK _____ **10. OR.**

JUDO TALDEA, OHOREZKO MAILARUNTZ _____ **13. OR.**

NOAUA! TXIKIN, HIZKI ZOPA _____ **16. OR.**

PUBLIERREPORTAJEA _____ **18. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

Aurrera doan herriaz

Hauteskunde kanpaina bete-betea zen. Amaiak, egu-nero bezala, lanerako bidea egin zuen. Goiz hartan ere madarikatzen jaiki zen. Nekatuta dabil aspaldi. Lau hilabetekoa bada ere, haurdunaldiaren pisua nabaritzen hasia du. Baina aurrera egiteko, lan egin behar, ezta?

Unibertsitatean biologia ikasketak egin eta gero, doktordutza egin eta gero, bertako telefonia konpainia batentzat lan egiten amaitu zuen. Besterik ez zuen aurkitu. *Teleoperadora* deitzen omen zaion ofizioan. Astebeteko lan-kontratuak sinatuz aritu da lanean. Hiruzpalau hilabete egin ditu horrela. Astebeteko lan-kontratuak kateatuz. "Ebentual".

Duela bi aste, esan dut, hauteskunde kanpaina bete-betea zen eta, egun horretan ere, lanerako bidea egin zuen Amaiak. Osteguna zen. Eta berarentzat bezalaxe, "ebentual" denentzat ere nagusiaren hitzak berberak izan ziren: "bihartik aurrera ez etorri gehiago". Berak bazekien hori gerta zitekeela. Berak sinatzen zituen lan-kontratuak. Bazekien zein baldintzetan

ari zen lanean. Horregatik ezin kexurik azaldu. Ezin esan, nekatuta egon arren, lana gustuko ez zuen arren, lanaren premia zuela eta ez zela bidezkoa.

Gauzak horrela, parregarria egiten zait azken bolada honetan behin eta berriz entzun dugun lema, "aurrera doan herria (un pais en marcha)". Marketing lema deigarrien garaian bizi gara. Baita alderdi politikoak ere. Hauteskunde hauetan ikusi dugu. Batzuk eta besteak, maximalismoetan "endredatuta".

Neurtzekoa litzateke beste alderdiekiko diferentziak nabarmentzen pasa duten denbora. Batzen gaituena askoz gehiago denean. Eta aldamenekoa zirikatzen xahutu duten energia?

Aipatu ditudan "ebentualekin" eta antzeko bidegabekeriak pairatzen dituztenekin, behintzat, ez dira gehiegi akordatu. Akaso ez direlako telebistan azaldu. Eta honez gero, jakin beharko zenuke, lagun, telebistan azaltzen ez dena ez dela existitzen...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ika-mika!

Alderdi bakarreko bortxakeriaz Abiziki kezkatua, heure tripartitoko polizia autonomo espainolen eta beste espainiarren gehiegikeriez behin ere txintik esan ez duana, ezta lan istripuetan hildako euskal herritarrez, ezta etxeko biolentziak kendu dizkigun emakumez, ezta drogak lapurtu dizkigun hamaika gazteez, ezta...

Berarengana joan eta aurrekoari hitzik esaten ez ziona, begira eta isilik geratzen zitzaiona; zuria baino gehiago koldarra, kakati: argudiorik gabe, erantzunik gabe, bai baitzekien ahoa irekitzekotan hanka sartzeko aukera handia zuela. Ez zen zurikeria jesuitikoa bakarrik, ez zen zinismo demokratikoa bakarrik, segurantziaz eza zen hura, neurri handi batean.

Ez, ez zen intsumisioa, epela baizik: erdi-sumisioa. Objektorea, edo. Kontua zen Espainiako eta Frantziako armadei aurre ez egitea, oligarkiari buru ez egi-

Adio, Faraontxo!

tea, nola edo halako boteretsuen aurrean ez jartzea, etsaiari burukominik ez eragitea. Etsaia gurea delako ez horrena.

Eta erraustegiaren kontrako manifara ere ez azaltzea: horixe baitzen posturarik zailena, zuriaren hitzetan. Gero, kexu, beste norbaitzuk bere irudia eraman zutelako manifara. Zer nahi huen, agertu ez eta koherentziaren koherentziak joandako jendeari hitza galarazi, ala?

Ni. Neu. Nik egin dut, nik esaten diet, nik agindu dut, nik debekatuko dut. Zein haiz hi? Noiz arte hago hi horretan? Zer da "hori", betirako botere omnimodoa, ala? Hala izanik ere, hi bezalako giza oinarri minimorik gabeko tipo batek mereziko ahal luke horrelakorik?

Herrian agindu, baina herrian bizi ez. Horrela, bai!

Zorionak Udalbatzak eman eta argazkia hirea bakarrik. Bandoa edo, hire irudia. Herriko festak eta, hire erretratua.

Alderdikideen propaganda eta heu bakarrik osterera ere! Heure iruzkin tontoloak, heure burutazio gexalak, heure graziarik gabeko bromak... mediokreago izan ote liteke pertsona? Espilikatuko al didak zergatik haizen horren egolatra?

Lanean hasi ordurako, soldata doblera altxa. Mereziko, ote?

Akaso: behin ere oinezkorik ez dabilen bideetan farolak jartzearen, espekulazioaren mesedetan etxeak eta etxeak planifikatzearen, hirurehun urteko eraikina eguneko zentro bihurtzeko galtzearen, erdara Udalean sartzearren, Zubietako tarte bateko barkaezineko zuloak josiriko tartetxo bat bezpera-bezperan (ai!) asfaltatuko huela iragartzeko munipak mobilizatzearen...

Alferrik segitzea. Lau urteko lokamutsa pasa da herri honetan, zoriez.

Adio, Faraontxo, adio!

Edorta Agirre

Tania Nagornaia, Andatza Kirol Elkarteko entrenatzailea

“Nik beti esaten dut: entrenamendu gogorrak, lehiaketak errazak”

Soinketa erritmikoa sustatzen lan ederra egiten ari da Andatza Kirol Elkartea. Tania Nagornaia errusiarra da Andatzako ikasleen entrenatzailea. Bere ikasleek egindako elkarrizketa duzue hauxe.

Zenbat denbora daramazu soinketa erritmikoa egiten?

Tania Nagornaia. Errusian hasi nintzen 6 urterekin gimnasta bezala, gero unibertsitatera iritsi nintzenean INEFeko ikasketak egin nituen. Entrenatzaile bezala 29 urte daramazkit.

N. Ipurua elkartearekin podiumera askotan igo zarete, zein da gakoa?

T. N. Soinketa erritmikoa maitatzea, gimnastei beraiei ahal duten guztia erakusteko aukera ematea, dakidan guztia erakustea eta gimnasta talde on bat lortzea.

TANIA NAGORNAIA

“Errusian hasi nintzen sei urterekin, gimnasta bezala. Entrenatzaile lanetan 29 urte daramazkit”

N. Nola lortzen da gimnasten diziplina eta lehiaketetan jarrera on bat edukitzea?

T. N. Inportantea da jokoekin hasia, seriotasunarekin hartzea. Lana egin ondoren dibertitzeko garaia iritsiko baita.

Nik beti esaten dut: entrenamendu gogorrak lehiaketak errazak.

N. Espainiako entrenatzaile nazionala izan zara, nola izan zen garai hori?

T. N. Oso gogorra. Ilusio askorekin joan nintzen, nekien guztia erakusteko,



TANIA NAGORNAIA ENTRENATZAILEA, BERE IKASLEEKIN BATERA.

baina ez dizute denbora ematen emaitzak edukitzeko. Urte batean ez du denbora ematen, eta joaten diren gimnastak oraindik lan pila bat egin behar dute.

N. Orain Usurbilen zaude, zer moduz joan da urtea?

T. N. Oso ondo, neskek gogoarekin etortzen dira eta horrela oso erraza da lana egitea, baina denborarekin.

N. Neska onak daude?

T. N. Noski baietz. Gogoekin badaude aterako dugu talde on bat.

Tolosa eta Hernaniko topaketetan hartu du parte Usurbilgo soinketa taldeak

Duela bi aste, Tolosako Usabal kiroldegian Udaberriko topaketa ospatu zen. Lehiaketa horretan Usurbilgo taldeko neskek hartu zuten parte. Denek lan txukuna osatu bazuten ere, nabarmentzekoa da Iraia Furundarenaren garaipena. Lehenengo postua lortu zuen alebin mailan. Era horretan, urrezko dominarekin etxeratu zen. Aipagarria ere Garazi Iturralde egindakoa, kadete mailan 5.postua lortu zuen.

Hori Tolosako topaketan izan zen. Aurreko larunbatean, aldiz, B Mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Hernaniko kiroldegian.



Infantil mailan, Oihana Arsuagak hartu zuen parte. Zorionak denei!

Iñaki Añorgak

duatloi denboraldi bikaina egin du

Dagoeneko duatloitik triatloira salto egiteko prest dagoen kirolaria da. Udaberrian gertu bezain urruti, Oñatin edota Malagan, gustura eta emaitza ezin hobeekin aritu da korrikan eta bizikleta gainean. Iñaki Añorga kirolari usurbildarrak denboraldi borobila burutu du, 23 urtez azpikoan mailan.

NOAUA! Duela gutxi hasi zara?

Iñaki Añorga. Iaz Gernikan parte hartu nuen, Madrilan ikasten nengoen, ez bainuen ekitaldien berririk. Horregatik, Donostian Atletico San Sebastianen izena eman nuen.

N. Urte borobila beraz?

I. A. Pena 23 urte azpikoetako azken urtea dela. Hurrengo urtean, jada senior mailan izango naiz.

IÑAKI AÑORGA

“Asko topera ibiltzen dira. Nik gustura egiten dut. Kirolarekin deskonektatu egiten dut”

N. Malagako proba ezustean etorri zen?

I. A. Oñatiko lasterketan partehartu eta etxera bueltatu nintzen. Lasterketa eta gutxira jartzen dituzte emaitzak Interneten. Begiratzan hasi eta hirugarren geratu nintzela jakin nuen. Athletic-eko zuzendariari deitu nion nire saria inork jaso zezakeen galdetzeko. Handik 20 minutura berak deitu zidan. Kide bat falta zutela eta Malagara joan nahi nuen esan zidan.

N. Nola prestatzen zara?

I. A. Nik ez dut ezer sakrifikatu nahi



EUSKAL HERRIKO DUATLOI LASTERKETA GUZTIAN LEHEN POSTUETAN IBILI DA IÑAKI AÑORGA.

kirolagatik. Igandean entrenatzera joateko larunbat gaueko hamarretan ez naiz oheratuko. Nahiago dut larunbatean ondo pasa. Asko oso obsesionatuta daude kirolarekin, edota parrandarekin.

N. Proba horietako esfortzua ez al da gehiegizkoa?

I. A. Asko topera ibiltzen dira. Nik gustura egiten dut. Kirolarekin deskonektatu egiten dut. Besteak lagunekin tabernara joaten diren bezala, nik kirolarekin deskonektatzen dut. Gainera, jendea ezagutzen zoaz eta oso giro ona dago. Hasieran beti norbaitekin joaten nintzen. Orain bakarrik joan arren, beti ezagunen bat izaten da. Txikitatik izan dudana bizimodua da.

N. Kirol sena duzu beraz?

I. A. Beti. Lehen futboleko txarra nintzen, baina korrika egiten nuen. Gero, 17 urterekin, Behobian korrika irten nintzen eta asko gustatu zitzaidan.

N. Hortik, Madrilera ikastera joateko erabakia?

I. A. IVEF egin nahi nuen, baina hain ikasle ona nintzenez mediak ez zidan ematen Gasteizera joateko. Pribatua bilatu behar. Aita mugitu zen eta Madrilera joateko esan zidan, hasieran ez zidan grazia handiegirik egin. Hasieran jendea ezagutu arte gaizki samar, lotsatia bainintzen. Baina gero ondo.

N. Esperientzia positiboa izan da?

I. A. Karrera baino, bertan bizitakoa. Urte batean sei pertsona bizi izan ginen. Denok ados jartzea zaila zen. Orduan, jendea errespetatzen ikasten da; bakoitzak bere maniak ditu eta.

N. Entrenatzerakoan ere ezagutu duzu jendea?

I. A. Bidean bizikletan norbait harpatzean egun on esan, nora doan galde-tu eta berarekin joaten naiz. Batean, Zarautzetik gora Orioko gainan Joseba Zubeldiarekin topo egin eta harekin

joateko esan zidan. Baina ezinean joan nintzen. Bezperan gainera, Lasarten korrika aritu nintzen. Bestelakoan, nire kabuz ibiltzen naiz.

N. Probetan, une zailak gainditzeko zer egiten duzu?

I. A. Une zailenak bizikletan pasatzen ditut. Aldapa gora egokitzen denean, aurrekoari begira jarri eta ia hau lehen bait lehen amaitzen den esaten duzu. Bestela, aguantatu pasa arte. Askotan aldapa luzea dela uste izanda etsi egiten duzu eta gero, aldapa motza zela konturatzen zara. Eta alderantziz.

N. Kirolari gisa. Udarako zer gomendio?

I. A. Andatza aldera ibiltzera joatea. Beti bertara joaten naiz eta ez dut inor aurkitzen. Ez dago oso polita, pinuak botatzen ari dira eta. Zubietako buelta egiten helduak bai, baina gazte gutxi ikusten da.

IÑAKI AÑORGA

“Andatza aldera ibiltzera joaten naiz eta ez dut inor aurkitzen. Zubietan helduak bai, baina gazte gutxi”

N. Kirol egiteko ohiturik ez duenak nondik hasi behar du?

I. A. Taldeko kirol bat bila dezala, erraz egiteko modukoa. Koadrilarekin futboleko jokatzeko adibidez. Behin gus-tuko izanez gero, pixkanaka korrikan, handik bizikletara eta hortik... duatloiak egitera!

ARITZ GORRITI



UNE ZAILENAK BIZIKLETA GAINEAN PASATZEN DITUELA
AITORTU DIGU IÑAKI AÑORGAK.

“Duatloia hemen ez da oso ezaguna, proba gehienak Bizkaian ospatzen dira”

Kirolari batek izandako udaberri Koparoren erreposoa da honakoa. Duatloiko 23 urtez azpiko probatan honako emaitzak lortu ditu Iñaki Añorgak:

- 07/III/4: 9. postua Lasarten.
- 07/III/17: 3. postua Oñatin.
- 07/III/25: Malagan, 80. postua.
- 07/III/31: 3. postua Durangon.
- 07/IV/14: 2. postua Gernikan.
- 07/IV/28: 2. postua Arbizun.

Baina oraindik bere hitzorduak ez dira amaitu. Triatloia probatzeko asmotan dabil; bertan igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa uztartzen

dira. Hala, ekainaren 10ean Donostian eta astebete beranduago Lekeition ospatuko diren probetara joateko asmotan dabil.

Kirol honek ez du beste hainbat ekintzek izaten duten jarraipena. “Ez da oso ezaguna, hemen gertu ikusteko aukera handirik ez dago; gehienak Bizkaia aldean ospatzen dira”, adierazi du Añorgak.

Alde horretatik, Txokoaldekoak oso ondo hartuko luke hemen gertu, herrian, beste leku askotan egiten den bezala, lasterketaren bat izatea. “Horren pena dut”, adierazi du Iñakik.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Ekainak 10, Eskola Txikien Festa Zubietan

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik lemapean ospatuko da Eskola Txikien festa; aurten, Zubietan. Antolatzaileek prest dituzte ekainaren 10erako ekitaldiak. Horrelakoetan, betikoa; eguraldia etsai baino lagun izan dadila egun guztian zehar.

“Eskola txikiak herri eta auzo geroaren bila pausorikan pauso”. Hala hasten da, Xabier Arregik Zubietan izango den eskola txikien festarekin lotuta, idatzi duen abestia.

Ikasle askoren jaia izango da eta haiei zuzendutako ekitaldi mordo prestatu dute antolatzaileek. Pirritx eta Porrotx pailazoak bertan izango dira. Goizean, gune batean baino gehiagotan banatuta, mota ezberdinetako jokoetan ezin hobeto pasako dute; herri kirolean, margoketa eta ur jolasetan, jolas kooperatiboean edota birziklatzeari lotutakoetan.

Hain zuzen, gai horrekin lotuta, egunean zehar edalontziak euro baten truke eskuragai izango dira. Baina ez dira edozein edalontzi; birziklagarriak baizik. Egunaren amaieran, bere edalontzia itzultzen duenak ordaindutako euroa jasoko du.

Edatekoaz gain, jateko eskaintza zabaldua. Herriko plazan nahi izanez gero, txekorra, sardinak, solomo otartekoak eta izozkiak. Bigarren aukera, Araetan antolatuko den bazkarira joatea.

Patxi Perezekin dantza saioa

Zubietaren nortasun ikurretako bat den errebote plazan joko garbi partida aurreikusten da. Egunari amaiera emateko, aldiz, Patxi Perez. Beren eta talde kide dituenek esanetara bat baino gehiago jarriko dute dantzan. Halaber, ez dira faltako trikiti doinuak ezta batuka-



PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK ERE EKAINAREN 10EAN ZUBIETAN EGINGO DEN FESTAN IZANGO DIRA.

darenak ere; “Pausoka” taldea gonbidatu dute. Haiek erritmo bikaina jarriko diote egun osoko festari.

Bertaratzeko erraztasunak

Eskola Txikien jaira joateko asmotan dabilenari ahalik eta erosotasun handiena eskainiko die antolatzaileek. Usurbilgo Lanbide Eskolan, Araetan, Astiazaranen eta hipodromoan aparkalekuak. Araetan autobusak bilduko dira. Eta aipatutako garraio bide publikoz festara joan nahi duenak, 9:30-11:00 artean eta 18:30-19:30 artean izango du horretarako aukera. Eguraldi onarekin, paseatuz, baita oinez ere.

Modu batean edo bestean, jai gunera iritsitakoan, frontoi atzean jarrita egongo den kontsignan gauzak utzi ahal izango dira; 9:30-19:30 artean.

Bazkalaurretik, Eskola Txikien hurrengo jaia antolatzeaz arduratuko direnei lekukoa emango zaie.

Igande honetan, Ikastolaren Eguna

Urtero bezala, ekaineko lehen igandearrekin batera, Udarregiko ikasle, guraso eta irakasleek Ikastola Eguna ospatuko dute. Jokoak, eskulan erakusketa eta hurren ikuskizuna egitarauko ardatz:

9:00 Txistularien esnadeia.

9:00-11:30 LH eta DBH-ko ikasleen jokoak.

10:00-13:30 Ikasleen eskulanen erakusketa.

12:00 HHkoen jaialdia kiroldegian: “Bolon bat eta bolon bi”.

14:30 Herri bazkaria frontoian eta bazkal ondorengo girotea.

ARITZ GORRITI

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Otar-Goxo
Elizkaguiak
Zubiaurrenca, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Mixel Etxekopar musikariak eta Pierre Vissler pailazoak saio berezia eskainiko dute Sutegin

Ostiral honetan, ekainak 1, Sutegin izango dira Mixel Etxekopar eta Pierre Vissler. 22:30ean hasiko da ikuskizuna eta sarre-ra 3 eurokoa izango da. Mixel Etxekoparrek berak eman dizkigu Nafartarrak taldeak antolatu duen saio honi buruzko xehetasunak.

NOAUA! Nolako izango da Usurbilen eskainiko duzuen ikuskizuna? Ze izango da antzerki musikatu ala musika antzetzua, ala bietatik zerbait?

Mixel Etxekopar. Bietatik zerbait izango dela uste dut. Pierre Vissleren batean berak grabatutako soinuak taularazten ditu, eta nik, denbora berean, musika jotzen dut. Bestean, agerpenak egiten ditu, pailazoz jantzita, eta orduan musika eta klownaren jokoa nahasten dira, giro poetiko bat sortuz



EZKERRETARA PIERRE VISSLER ETA ESKUBITARA MIXEL ETXEKOPAR. NAFARTARRAK TALDEAK ANTOLATU DUEN SAIDA OSTIRAL HONETAN IZANGO DA SUTEGIN.

N. Zein da ikuskizunaren mamia?

M. E. Topaketa simple eta zuzen bat bi lagun artean, bakoitza bere mintzairarekin, musika, kantu, bertso... Gauza batzuk hitzartuak daude, inprobisaketak ere bere lekua badu.

N. Zure aldamenen izango da Pierre Vissler. Aurkeztuko diguzu zure bikotea?

M. E. Pierre Vissler duela 20 urte etorri zen Zuberoara. Astearte bat zen, eta berak dioen bezala ostegunetik bazakien gure hizkuntz deabru hau ikasiko zuela; errana egin eta geroztik Atharratze ondoren den Montorin bizi da. Soinuak grabatzen ditu, musika elektro-akustikoa konposatzen eta denbora berean klownaren lan miresgarri honetan murgildurik dabil.

N. Sutegiko emanaldia berezia izango al da edo aurretik gehiagotan aritu al zarete elkarrekin?

M. E. Hainbat proiektutan izan gara elkarrekin. Hebertik kultura elkartean gaude biak, baina ikuskizun hau, lehen aldiz, Hazparneko Xuriatea kontzertu aretoan eskaini genuen 2007ko otsailean.

Zalao Arnaizek irabazi du jaietako Egitarau Lehiaketa

Guztira 6 lan aurkeztu dira Santixabeletako Egitarauaren diseinua egiteko lehiaketara. Epaimahaia Santixabeletako Jai Batzordeak osatu du eta maiatzaren 22an egindako bileran hartu zen erabakia. 500 euroko saria jasoko du Zalao Arnaizek.

Ekainaren 4tik 8ra Zumarten matrikulatzeko aukera

Astehenean, ekainak 4, zabalduko da ikasturte berrirako Zumarten matrikulatzeko epea. 2007-2008 urterako prestatu duten eskaintza zabala da: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, abesbatza, eskusoi-

nua, pianoa, txistua, kitarra, flauta, alboka, informatika musikala eta talde instrumentalak. Izena emateko ordutegia honakoa da: goizez, 10:00-13:00, eta arratsaldez, 16:30-19:30 artean. Informazio gehiago 943 371 594 telefono zenbakian. Matrikulatzeko azken eguna, ekainaren 8a.



BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Gehiengo osotik gertu ibili da EAE-ANV alderdia

Herri abertzalean bizi gara. Hautesleagoaren ia %90ak alderdi abertzale baten aldeko botoa eman zuen. Eta abertzaleen artean, ezkertiarrek gehiengo izan dira udal hauteskunde hauetan. Horren ondorioz, Usurbilgo ezker abertzaleak alkatetza berreskuratu du.

EAE-ANV. Xabier Mikel Errekondoren taldea gehiengo osotik gertu ibili da. Zazpi eserleku behar dira gehiengo osoa lortzeko eta EAE-ANVk sei lortu ditu. Emaidza horiek, gutxiengoan agintzeko moduan da. Gai zehatz batzuetan, ordea, akordioetara iritsi beharko dute EAE-ANVko ordezkariak (udal aurrekontuak, esate baterako, nagusitasun osoz onartu behar dira).

EA. Alderdien Legea medio, Luismari Ormaetxeak alkatetza eskuratu zuen duela lau urte. Udal gobernuan EAk egin duen lanak, ordea, ez du hautesleagoaren babesa jaso. Duela lau urteko datuekin alderatuz, ehundik gora boto galdu ditu Eusko Alkartasunak Usurbilen.

Aralar. Duela hiru hilabete, aurkeztu ala ez aurkeztu, zalantza batean zeuden. Azkenean, aurrera egin zuten eta lehen hauteskundetan bi zinegotzi lortu ditu Aralarrek. Eta Ezker Batua-Berdeak premiarik gabe.

EAJ-PNV. Udal hauteskunde hauek ezusteko nagusiena izan da, ezbaierik gabe. Jaitsiera aurreikusitako zitekeen, baina ez hainbestekoa. Iñaki Illarramendi izango da alderdi jeltzale-



PASA DEN IGANDEAN, HERRITARRAK BOZKA EMATERA DEITUTA ZEUDEN.

ak izango duen hautetsi bakarra.

PSE-EE/PSOE. Azken legegaldian, Alderdien Legeak udaletxetik kanpo utzi zuen UHL. Horri esker, PSE-EEK bi zinegotzi izan ditu azken lau urteotan. Baina aukera hori ez du baliatu eta gainera botoetan atzera egin du alderdi sozialistak. Hala ere, Amaya Goyaran udaletxean izango da datozen lau urteotan.

PP. Alderdi popularrak ere, atzera egin du eta era nabarmenean gainera. 2003an, Alderdien Legeari esker PPK zinegotzi bat eskuratu zuen. Baina lau urteotan ez du aukera hori behar bezala baliatzen asmatu.

Kanpainaren azken txanpa

Ezin aipatu gabe utzi Eusko Alkartasunak kanpainaren azken egunetan pairatu behar izan zuen jazarpena; hauteskunde bezperetan, Sutegin eskaini zuen mitinean hain zuzen. Bestetik, ezezagunek, EAren egoitzaren aurka harriak bota zituzten larunbat gauean.

Herri galdeketa egin zen Zubietan

Zubietako Herri Batzarrak errauste-plantaren inguruan egin zuen herri galdeketa ezezkora nagusitu zen. Errauste-plantaren kontrako botoa eman zutenek onartu zuten prest zeudela hondakinak tratatzeko modu alternatiboak bultzatzeko. Alternatiba horren

oinarriak izango lirarteke zaborraren sorrera murriztea, hondakinak ahalik eta gehien berrerrabiltzea eta hondakinak ahalik eta gehien birziklatzea.

Nola? Gaika egindako bilketa antolatuz eta bilketan jasotako materia organikoa konpost bihurtuz.

Abstentzioa, Gipuzkoako baxuenetakoa

Gipuzkoan abstentzioa ia %40koa izan da (%39,96). Usurbilen, aldiz, hautesleen partehartzea handiagoa izan da. Abstentzioa % 31,38koa izan baita Usurbilen.

EHNArekin bozkatzeko aukera izan zen

Herriar batzuk EHNA Herribiliz bozkatu zuten Usurbilen (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena).

Luismari Ormaetxea, Gipuzkoako Batzar Nagusietan

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaien artean baziren hainbat usurbildar. Luismari Ormaetxeak bakarrik lortu du eserlekua. EAk Donostialdeko barrutian aurkeztu zuen zerrendan bigarren zegoen Ormaetxea.

Manuel Michelena, azken lau urteotan Usurbilen PPKo zinegotzi izan dena ere, Batzar Nagusietan izango da.

Errauste plantaren alde ala kontra al zaude?

	Usurbil	Donostia	Guztira
Errolda Zubietan	166	222	388
Partehartzea	110	133	243 (%62)
Alde			1 (%0,4)
Kontra			242 (%99,6)

Usurbildarrek aukeratu dituzten ordezkariak



Xabier Mikel
Errekondo
EAE-ANV



Nerea
Erauntzetamurgil
EAE-ANV



Imanol
Azpiroz
EAE-ANV



Ainara
Uribe
EAE-ANV



Juanjo
Olaizola
EAE-ANV



Anttoni
Bengoetxea
EAE-ANV



Luismari
Ormaetxea
EA



Salome
Portu
EA



Josune
Urquia
EA



Lontxo
Zubiria
Aralar



Joxe Ramon
Furundarena
Aralar



Iñaki
Illarramendi
EAJ-PNV



Amaya
Goyaran
PSE-EE

EAE-ANVk eskuratuko du alkatetza

alderdiak	botoak		%		eserlekuak	
	2003	2007	2003	2007	2003	2007
EAE - ANV	-	1.291	-	41,05	-	6
UHL	1.184	-	-	-	-	-
EA	772	647	39,09	20,57	5	3
ARALAR	-	537	-	17,07	-	2
EAJ-PNV	711	256	36,00	8,14	5	1
PSE-EE	286	248	14,48	7,89	2	1
PP	146	81	7,39	2,58	1	0
EB-IU / B	-	48	-	1,53	-	0
ZURIAK	60	37	3,04	1,18		

07 Zentsua_4.648 • Hautesleak_3.189 • Baliogabeak_44 • Abstentzioa_%31,38

03 Zentsua_4.575 • Hautesleak_3.186 • Baliogabeak_27 • Abstentzioa_%30,36

Oiardo kiroldegiak

eskaintza zabala egin du uda honetarako

Uztailean zehar kirol jarduera ezberdinetan parte hartzeko aukera izango da. Hemen duzue Kirol Patronatuak egin duen eskaintza. Informazio gehiago nahi izanez gero, Oiardo kirol-

degira jo edo bestela honako telefono zenbaki honetara deitu: 943 37 24 98. Udako jarduera hauetan izena emateko epea ekainaren 1ean zabalduko da eta ekainaren 17an amaituko da izena emateko epea.

Helduentzat

Igeriketa, hastapenak	Helduentzat	Lanegunero	08:00-08:50	Igerilekuan
-----------------------	-------------	------------	-------------	-------------

Igeriketa, hobekuntza	Helduentzat	Lanegunero	20:00-20:50	Igerilekuan
-----------------------	-------------	------------	-------------	-------------

Ikastaroak uztailaren 4-27 bitarte izango dira. Bakoitzak 45,56 euro.

Aerobika	Helduentzat	Astelehena, asteazkena, ostirala	09:00-09:50	Lehorrean
----------	-------------	----------------------------------	-------------	-----------

Pilates	Helduentzat	Asteartea, osteguna	09:00-09:50	Lehorrean
---------	-------------	---------------------	-------------	-----------

Pilates	Helduentzat	Asteartea, osteguna	19:00-19:50	Lehorrean
---------	-------------	---------------------	-------------	-----------

Pilates	Helduentzat	Asteartea, osteguna	20:00-20:50	Lehorrean
---------	-------------	---------------------	-------------	-----------

Ikastaroak uztailaren 4-27 bitarte izango dira. Aerobika 16,39 euro eta Pilates 10,26 euro.

7-14 urtekoentzat

Igeriketa, estiloak	7-14 urtekoentzat	Astelehena, asteazkena, ostirala	09:45-10:30	Igerilekuan
---------------------	-------------------	----------------------------------	-------------	-------------

Ikastaroak uztailaren 4-13 bitarte eta 16-27 bitarte izango dira. Txanda bakoitza 13,67 euro.

7-8-9 urtekoentzat

Udako kirolak eta jolasak	7-8-9 urte	Lanegunero, bi txanda	10:00-12:30	Lehorrean
---------------------------	------------	-----------------------	-------------	-----------

Ikastaroak uztailaren 4-13 bitarte eta 16-27 bitarte izango dira. Txanda bakoitza 50,89 euro.

10-11-12 urtekoentzat

Udako kirolak eta jolasak	10-11-12 urte	Lanegunero, bi txanda	10:00-12:30	Lehorrean
---------------------------	---------------	-----------------------	-------------	-----------

Ikastaroak uztailaren 4-13 bitarte eta 16-27 bitarte izango dira. Txanda bakoitza 50,89 euro.

7-14 urtekoentzat

Gimnasiako topaketak	7-14 urte	Lanegunero, bi txanda	09:30-13:30	Lehorrean
----------------------	-----------	-----------------------	-------------	-----------

Ikastaroak uztailaren 4-13 bitarte eta 16-27 bitarte izango dira. Batera (50,00 euro) ala bietarako (100,00 euro) izena eman daiteke.

Ohorezko maila lortu dezakete igandean

Usurbil Judo Taldeak gizez-koen Kluben Liga Nazionaleko azkeneko jardunaldia izango du igande honetan Madrilgo Kirol Kontseilu Gorenaren kiroldegian. Usurbildarrak denboraldi hasieran jarritako helburua lortzera doaz, Ohorezko mailarako igoerak ihes egitea ia ezinezkoa baita. Orain arte jokaturako saio guztiak irabazi dituzte eta 18 punturekin 1. mailako lehen postuan kokatuta daude 4 puntuko aldearekin

Duela bi urte jarritako helburu nagusietako bat betetzear dute Usurbil Judo Taldekoek. Orduan hasi ziren Estatuko judo talde desberdinak parte hartzen duten Kluben Liga Nazionala jokatzen. Bi denboralditan 3. mailatik 1. mailara igoetzea lortu zuten eta orain, estatuko klub onenak dauden Ohorezko mailara igoetzeko txartela eskura dute.

Igande honetan, ekainaren 3an, jokatuko dute 1. mailako azken jardunaldia. Rei, U. Oviedo eta J.C. Madril taldeak izango dituzte aurrez aurre eta igoera lortzeko hauetako baten aurkako saioa irabaztea nahikoa dute herriko judoek. Orain arteko saio guztiak irabazi dituztela, eta talde horietako bat azken bigarren



postuan dagoela kontuan hartuta badi-rudi ez dutela lehen hiru postuak eskuratzeko arazorik izango. Hala ere, 1. mailan lehen postua ere eskura dute eta ziurrenik ez diote aukera horri muzin egingo, liga irabaztea ere helburuetako bat baita Esteban Arrillagak zuzentzen duen talde honentzat.

Orain arte ez dute areriorik izan liga honetan. 45 norgehiagoka jokatu dituzte, talde bakoitzaren aurka 5, eta lehen hiru jardunaldietan 4 norgehiagoka besterik ez dituzte galdu. Honela, sailkapenean lehen postuan daude jokoan egon

diren 18 puntuak eskuratuta eta atzetik dituzten hurrengo bi taldeekiko 4 puntuko aldea dute. Igande honetan, berriz, 6 puntu egongo dira jokoan.

Ibai Peña, Andoni Aizpurua, Aitzol Arrospide, Xabier Urkizu, Iker Lizarribar, Egoitz Mora eta Mikel Ponga dira Usurbil Judo Elkarteko ordezkariak txapelketa honetan eta hauetako bost arituko dira igande honetan Madrilgo Kirol Kontseilu Gorenaren kiroldegiko norgehiagoketan.

JOSU ARANBERRI

27-30 galdu zuten eskubaloi taldeak

Usurbil Kirol Elkarteko senior mailako eskubaloi taldeak ezin izan zuten pasa den larunbatean Bergararen aurka jokatu zuten partida garrantzitsua irabazi. Datorren denboraldian Euskadiko txapelketa jokatze-ko igoera faseko azken bigarren jardunaldian garaipena behar beharrezkoa zuten azkeneko partidara igoera lortzeko aukerekin iristeko, baina 27-30 galdu zuten Oiardo kiroldegian.

Giro bikaina izan zen bertan. Usurbil Kirol Elkarteko ordezkarien deia erantzunez herritar ugari hurbildu zen Oiardo kiroldegira eta jokalariek ez zuten zaletuen animo faltarik izan. Azken urteetako sarrerarik bikainen izan zen, leporaino bete ziren

eskubaloi pistako harmailak eta bertan sortu zen giroa ere primerakoa izan zen.

Hala ere, azkenean garaipenak ihes egin zuten Oiardotik. Lehen zatian urduri samar irten ziren herriko jokalariek eta bergararrak aurrera egin zuten markagailuan, baina atsedenaldira iritsi aurretik aldea gol bakar batera murriztea lortu zuten usurbildarrek. Partidari buelta emateko gai izango zirela bazirudien ere azkenean 3 goleko abantaila lortu zuten Bergarak.

Honela, larunbat honetan Urdanetaren aurka jokatuko du Loiun igoera faseko azken partida Antonio Castrok eta Jose Lorenzo "Manzano"k zuzendutako taldeak.

Hasi da Usurbil Cup

Pasa den larunbatean areto futbol partidak ikusteko aukera izan zen herriko pilotalekuan. Haurrak eta gaztetxoak gustura ibili ziren bertan eta hemendik aurrera ere horretarako aukera izango dute. Hasi da Usurbil Cup 2007 areto txapelketa eta ekainaren 30a bitartean neurketa ugari jokatuko dira herriko frontoian. Guztira 23 taldek eman dute izena 4. edizio honetan benjamin, alebin, infantil eta kadete mailetan banatuta. Larunbat arratsalde honetan ere beste 10 partida jokatuko dira eguerditik hasi eta ilunabarra iritsi bitartean.

Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 31, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 1, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 2, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Ekainak 3, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 4, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 5, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 6, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 7, osteguna
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 8, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 9, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Ekainak 10, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

J. Etxebeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

**Zubieta-Donostia
TST autobusak****ASTEGUNETAN**

Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

**Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)**

7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)**

12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)**

11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da

*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Partehartze handia**hauteskudetako kinielan**

Hauteskudetako emaitza asmatzen zutenen artean "Aupa Etxebeste!" pelikularen DVDa zozketatzeko deia egin genuenetik, asko izan dira jaso ditugun emailak. Baina bakarria izan da asmatzailea: Iñaki Errekondo. Zorionak! Nahi duzunean NOAUA!tik pasa saria jasotzera.

**Asteazkenean, olioia****eta bestelako hondakinak
birziklatzeko aukera**

Olio erabilia eta beste hainbat hondakin biltzen dituen San Markos Mankomunitateko ibilgailua hilaren lehen asteazkenean hurbiltzen da Usurbila. Ekainaren 6an, goizez, frontoiaren atzean izango da ibilgailua.

**Aldaketak eskubaloi taldeek
ekainaren 9an egingo duten
ospakizunean**

Egingo dute denboraldi amaierako ospakizuna. Hasiera batean, jokalarien eta jokalaria ohien arteko eskubaloi partidak goizez jokatzekoak ziren eta ondoren bazkaria. Baina aldaketak izan dira egitarauan. Arratsalde partean egingo dira eskubaloi partidak eta ondoren afaria. Tikitak alde aurretik erosi behar dira, maiatzaren 31 baino lehen: usurbilke@usurbil.com e-postara idatziz edo zuzendaritzako edozeini eskatuta.

Sagardo Eguneko antolatzaileen oharrak

Sagardo Eguneko antolatzaileek botatzaileek egindako lana eskertu nahi dute. Eguraldi txarra egin arren, eta euria egin zuen unetan ere ez zutelako eten sagardo botatzea. Era berean, bezperan, larunbat gauean izandako gertakari bat ere aipatu nahi dute. Sagardo eguna hasteko ordu batzuk baino falta ez zirela Askatasuna plazan egun guztirako jarrita zegoen txapazko komun handi bat kaltetu baitzuten batzuek; palankarekin atea behartu, komunak hautsi eta garbiketarako tresnak lapurtu zituzten. Sagardo Egun osoan zehar garbiket

ta lanak egiteko kontratatu zen langileak, igande goizean komuna kaltetuta eta materiala falta zela ikusi zuen.

Antolatzaileek gogorarazi dutenez, herritar guztiontzat jarritako hobekuntza da komuna. Eta aurtengoa ikusita, hurrengo urtean, akaso Udalak ez duela jarriko hainbeste kostatako gauza bat.

Amaitzeko, baten batek baso zaharren bat edota aurtengoa berreskuratu nahi badu deitu dezala telefono zenbaki honetara: 686 191 372 (Leire). Baso zahar guztiak 50 eurotan eskura daitezke.

Aldi baterako egonaldiak adineko ezinduentzat

Egoitzetako aldi baterako egonaldi programa adineko ezinduentzako zerbitzua da. Pertsona horiek beraien etxeetan bizi dira, baina hainbat arrazoi direla eta, epe zehatz batean, (zaintzailea gaixo edo ingresaturik dagoelako, larrialdiaren bat sortu zaiolako, atsedena behar duelako, etabar), ezin dute etxean bertan laguntza jaso eta ordezkari bizileku bat

behar dute egoitza batean. Programa honen helburu nagusia, menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileei atsedena hartzeko aukera ematea da. Iraupenari dagokionez, egonaldiak, gutxienez 15 egunetakoak izango dira eta gehienez ere hilabete batekoak. Baldintzak:

- Adineko ezindua izatea, Diputazioak egindako balorazioaren arabera.

- Gipuzkoan erroldatua egotea.

- Bere etxean egoteko laguntza sarrerik ez izatea, aldi batean. Hori horrela, jakinarazten da, 2007rako abuzturako eskaera egin nahi izan ezker, 2007ko maiatzaren 31 (osteguna) izango dela azken eguna. Interesatuak Usurbilgo udal gizarte laguntzaileekin harremanetan jarri (943 377110)

Agenda !!

Maiatzak 31 osteguna
- Goizeko 11:00etan Pikor Antzerki Taldearen "Jokoau" antzerkia Sutegin. Gaia: "bulling"a.

Ekainak 1, ostirala
- Soinurbil. Zizurreko ikasleak Sutegin. 18:00etan, sarrera doan.
Antolatzaileak: Zumarte eta Udala.
- Mixel Etxekopar eta Pierre Vissler. Sutegin, 22:30ean. 3 euro.
Antolatzailea: Nafartarrak.

Ekainak 2, larunbata
- Jolas Txokoak, 17:00etan Zubietako frontoian. Kilimiska animazio taldea. Plis, Plas, txalo eta Jolas.
- Soinurbil. Lauhaizeta Akordeoi Orkestra. 19:00etan Sutegin. Sarrera doan.

Ekainak 3, igandea
- Ikastolaren Eguna.

Ekainak 7, osteguna
- Euskal Herriko landareria. Sarrera doan.
Antolatzailea: Udala.

Datorren astean, "Eta zergatik ez?" antzezlan

Klownen garaia dela dirudi. Kasualitatez, astebeteko epean bi clown saio izango ditugu Sutegin. Aste honetan, Mixel Etxekopar musikariarekin batera Pierre Vissler paila-
zoa arituko da. Datorren astean, ordea, Bazen Behin Clown taldekoak izango ditugu Sutegin. Ekainaren 8an, gaueko 22:30ean. Sarrera doan. NOAUA!k antolatu duen ekitaldi honek Udalaren laguntza jaso du.

"Eta zergatik ez?" antzezlanak ezintasun fisikoaren gaia jorratzen du. Ezintasun eta zailtasun ezberdinak dituzten pertsonaien bitartez, Bazen Behin Clown taldekoek agerian utziko dute azkenean guztiok ditugula ezintasunak eta zailtasunak. 2005. urtean, talde interpretazio onenaren



saria jaso zuen Donostiako XVII. Gazte Antzerki Jardunaldietan.

**PLIS PLUS
TXALO TA JOLAS**

Zubietako frontoian:
Ekainak 2 • 17:00
**KILIMISKA ANIMAZIO TALDEAREN
JOLAS TXOKOAK**

Kalezarreko plazan:
Ekainak 9 • 17:00
KIKI ETA KOKO PAILAZOAK




Oharra:
Eguraldi txarra aingoa balu,
Kalezarreko ekitaldiak haur
eskolan egingo litzateke.

Noaua!

Kaixo lagunok

Bigarren mailako ikasleok maiatzaren haseran Tolosako Zuloaga-Txiki eskolan izan ginen. Erleen ezaugarriak, ohiturak, opariak... Asko ikasi genuen. Aurkituko al dituzue ondorengo hizki-zopan azaltzen diren irudien izenak?

- ABARASKA
- ERLEA
- GELAXKA
- ARGIZARIA
- ERLEZAINA
- LOREAK
- ERLAUNTZA
- EZTIA
- NEKTARRA



ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

URDAINTZI S.L.
brakuntza

943 367 264
649 435 475
649 435 476

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA

Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokatu nahi dut. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 627285904.
- Bizkarre kalean pisua salgai: 2 komun, sukaldea, sala, 3 gela, ganbara eta gara-jea. 48.000.000 pta. Interesatuak deitu 650938489 telefonora.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. Tf: 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.
- Fiat Punto kotxea salgai. Matrikula: SS-AU. Prezioa: 600 euro. 669 71 88 35 (Arratsaldez deitu),

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Usurbilgo kafetegi batean goizez lana egiteko pertsona euskaldun bat behar dugu. Interesatuak deitu 690106070 telefonora.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 362713.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645 403 905.

Lan-eskaerak

- 19 urteko neska usurbildar bat naiz, magisteritzako ikaslea, eta udan umeak zaintzen egingo nuke lan. Interesatuak deitu: 610369330 / 943366220 (Ane).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326

- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Arratsaldetan lan egiteko mutil bat eskaintzen da. 664 774 024.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Apirilaren 27an kartera bat galdu da Usurbilen edo Aginagan dokumentazio-arekin. Norbaitek aurkitzen badu Noaua'n uztea eskertuko genuke. Mila esker.
- Apirilaren bukaeran, Askatasuna plazan Nike etxeko erloju bat galdu nuen. Erlojuak korrea urdina dauka. Norbaitek aurkitu badu eskertuko da: 943366014.
- Inork etxean alfer-alferrik telebista txiki bat edukiko balu, gustora berrerabiliko genuke Udarregi ikastolan. Bide batez, zaharkitutako vhs bideo reproduktorea ere hautsak jaten ari badizu, guk etekina aterako genioke ikastolan. Telefono zen-

- bakia: 943 361216.
- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez egini-koak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Gure loritua martxoaren 7an desagertu zen, haize handiarekin beldurtu egin zen. Ikusten baduzu, mesedez, deitu: 656 734 413 (Ainara).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Añamendi enziklopediaren 80 tomo daukat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak biririkariak, dena hornitua, ASR... Tf: 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere: Tf: 664 774 024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676 453 176.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.



Maiatzaren 31n egingo dituzu 8 urte. **Zorionak** eta muxu handi bat etxekoan partez eta prepartatu tarta handi bat denak han izango gara eta.



Zorionak Luis! Ekainaren 4an egingo dituzu urteak eta Aginagakako parrokia zorion bero bat opa dizu.



Zorionak Arrate! Ekainaren 4an zure urtebetetze eguna dela ez dugu ahaztu. Ilobak prest gaude merendola egiteko. Eta guk oporretara joateko... Muxuak eta ondo pasa!



Zorionak wapiximo! Ekainaren 1ean 10 urte beteko dituzu eta ea primeran pasatzen duzun! Muxurik beroena zure arreba partez!



Zorionak Oihana! Ekainaren 2an 13 urte handi "señorita" bat bihurtuta. Primeran pasa eta muxu handi bat, Eider eta gurasoan partez!



Zorionak Lorena, Aritz eta Endikari! Berandu bada ere ez gara ahaztu zuen urtebetetzeaz eta hemen gaude parkeko lagun guztiak zorionak eta muxu handi bat emateko hiruroi.



Lanbide Heziketan, ikasketak euskaraz

Batxilergokoa igarota, orain, Lanbide Heziketan izena emateko epea zabalduko da ekainaren 1ean. Garai honek, Buruntzaldeko euskara batzordeek eta ikastetxeek bultzatutako kanpainarekin bat egiten du; ikasketak euskaraz egiteko deialdiarekin. Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariak ere horren aldeko apustua egiten du.

NOAUA! Matrikulazio epea zabaltzar dago. Lehen aldiz datorrenak zer izan behar du argi?

Patxi Vaquerizo. Lanbide Heziketak 23 lanbide familia eskaintzen ditu. Pentsa dezala pixka bat, zer sektoretara jo nahi lukeen. Lanbide Heziketako eskoletako batera hurbil dadila, ikus ditzala instalazioak eta zentru horretako eskaintza zein den. Ez badu konbentzitzen beste batera jo dezala. Ikasten jarraitzeko ideiarekin etorri behar dute. Nahiz eta ikasketen edukien zatirik handiena praktikoa izan. Beraz, zonaldeko eskaintza ezagutu dezala eta hortik aurrera, erabaki bat har dezala.

Zein da egin beharreko tramitazioa?

P. V. Aurten, lehen aldiz, matrikulazio bateratua egingo da. Hartara, ikasleak ziklo eta zentro ezberdinetan aurre matrikulatu daitezke, baina aurre matrikulazio fitxa eskola bakar eta berean beteta. Gero, uztailaren hasieran zentro eta ziklo bat aukeratu beharko dute. Aurre matrikulazioa ez egiteak aukeraketa hori egitea zailtzen du.

Zeintzuk dira Lanbide Heziketako oinarri nagusiak?

P. V. Ikasleei lan munduan sartzea errazten saiatzen gara. Une honetan, funtzio nagusia enpresen funtzionamendutik ahalik eta gertuen dagoen hezkuntza eskaintzea da. Bestalde, gizartea hezteko aukera erraztea bilatzen dugu; birziklatze profesionalaren beharrean direnei edota langabetuei. Berrikuntzaren alorra ere garrantzitsua da, hezkuntza eskaintza enpresen beharretara gerturatzeko.

Urte askotan, Lanbide Heziketa ikasketak eskaintzan bigarren mailan egon izan da. Nola aldatu da egoera hori?

P. V. Eskola guztiok azken urteetan ahalegin handia egin dugu, ikasketak hauei duintasuna emateko. Enpresetara gerturatu eta haien beharren pareko hezkuntza jaso dezaten. Enpresak soberan zuten materiala hartzetik, bertan berrikuntza gisa sartzen zutena hartzera eta enpresak eskolaren ekipamenduan parte hartzera igaro gara. Azken urteetan,



EKAINAREN 1EAN ZABALDUKO DA AURREMatrikulazio EPEA.

eskolen gestioa eta ekipamendua hobetzeko ere lan handia egin da. Egun, ikaslearen betetasun-tasa oso altua da, egiten diren inkestetan arabera. Horrek esan nahi du ikuskera aldatu dela. Prestigioan irabazi dugu.

Emakumeen presentzia zertan da?

P. V. Azken urteetan, alor horretan lan handia egin dugu. Azken urteetan, sektore industrialean lanean aritu diren emakumeen esperientziak oso baikorrak izan dira, nahiz esperientzia gutxi izan. Administrazio zikloetan aldiz, egoera alderantzizkoa da. Guk joera horiekin hautsi nahi dugu. Zentro berean formazio ezberdin horiek eskaintzea interesgarria iruditzen zaigu. Alor industrialeko ikasketak egin dituzten neskek oso postu onetan lanean amaitu dute. Ohiturak aldatzea zaila, baina geroz eta posibleago da.

Hurrengo ikasturterako erronkak?

P. V. Helburu nagusia, dugun eskaintza gauzatzea. Epe luzeagora begira, hezkuntza eskaintza berriak prestatzen ari gara, energia berriztagarrien alorrean. Gure zentroak energia berriztagarrien aldeko apustua egina du. Ikasle batzuek haien enpresak ere sortu dituzte alor honetan. Alor garrantzitsua eta etorkizuneko delako iruditzen zaigu. Departamendu bakoitzak bere helburuak eta lanak ditu. Kudeaketa eta zentroko pertsonen arteko harreman onak izaten jarraitzea nahi genuke.

Apustuen artean, Buruntzaldeko

kanpaina. Nola gauzatzen da eguneroko lanean eskaintza hori?

P. V. Azken urteetan, A-tik D eredurako eraldaketa izan da. Gure eskaintza, horretara bideratu nahi izan dugu. Baina Lanbide Heziketa oso anitza da, horregatik ziklo bakoitzeko ikasle kopurua txikiagoa da. Editorialek zailtasun handiak dituzte euskarazko materiala prestatzeko, ikasle talde txikietara zuzentzen baitira. Zentzu horretan, zentroek, irakasleek eta udalak diruz lagunduta materiala euskaratu eta irakasleek alfabetatzean ahalegin handia egin dute. Irakasle askok eskuratu dute profila. Eboluzioa pixkanakakoa izan da.

Euskaraz ikasi, euskaraz lan egiteko. Kate hori enpresatan eteten da?

P. V. Enpresen kokagunearen edo tamainaren arabera izaten da. Enpresa txiki askotan, errazagoa da langileen arteko harremanak euskaldunak izatea. Enpresa handietan, errazagoa da erdara komunikazio hizkuntza gisa erabiltzea. Gure eskualdea ere oso ezberdina da eta ikasleek jatorria anitza. Gu behintzat elebitasun eraginkorra izaten ahalegintzen gara.

GOGOAN HARTU

Aurrematrikulazioa:
ekainak 1-7.

Matrikulazioa:
ekainak 29-uztailak 7.

hurbilag



Usurbilgo **Merkatari** eta **Ostalarien Elkarte**a

USURBILGO BALKOlen APAINKETA LEHIAKETA

HURBILAGO, Usurbilgo merkatari eta tabernarien elkarteak, udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzaz, herria girotu eta bide batez herri bera apaintzeko asmoz, "Balkoi apainketaren I Lehiaketa" antolatatu du.

PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. Usurbilgo edozein biztanle aurkeztu daiteke eta landu beharreko gaia eta erabili beharreko materialak libreak dira.
2. **Ekainak 4tik Ekainak 30 bitarteko egunetan**, Lizardi Liburudendan izena eman behar du:
Partaide bakoitzari kartel bat emango zaio leihakide bezala.
3. **Uztailaren 2 eta 3 bitartean**, epaimahaiak, partehartzailo guztion balkoi eta lehioak, ikuskatuko ditu. Beraz, partaide bezala adierazteko kartela ikusgai egon behar du.
4. Epaimahaia Susana Martin Irakaslea, Elxetxo loredendako ordezkaria, Yolanda Arrieta idazlea, HURBILAGO Elkarteko ordezkaria eta Usurbilgo udaleko ordezkari bat osatuko dute.
5. Epaimahaiak orokorrean duten itxura, kolorea, originaltasuna, herriarekiko erlazioa etabar hartuko ditu kontutan.
6. **Saria 500€tako**a izango da irabazlearentzat. Epaimahaiak sari nagusiaz aparte, beste sari osagarri bat emateko aukera edukiko du, balkoi edo lehiren batek aipamen berezirik merezi duela erabakitzen bada.

Balkoi saritu[et]an, uztailaren 9tik 14ra, irabazitako sariaren kartel bat jarriko da.